

Parisko 20. Liburu Azokak Portugalgo literaturaren berri emango du

Portugalgo 47 idazle beren herriari buruzko eztabaidetan eta irakurketan ariko dira

Erredakzioa / Baiona

Parisko Liburu Azokaren 20. aldia hasiko da bihar. Portugal ohoratu, eta horren berri emango dute karia

PARISKO Liburua Azokak bihar irekiko ditu ateak, Versailles ateko erakustazokan, eta martxoaren 22a arte iraunen du. Portugal hautatu dute ohorezko gomita bezala, 20. aldiaren karietara. Fernando Pessoa olerkari portugaldar zenaren irudiak islatzen du aurtengo aldiaren gaia. «Deskubritzaile portugaldarrek poeta espiritua zuten eta haien ontasuna Pessoaaren testuetan jarraiki zen», diote azokaren antolatzaileek. Haren bilduma aberatsa eta azokaren espiritua maila berean ezarri dituzte.

Liburu arras desberdinen erakustea da azokaren funtsa. Nazioarteko literatura-gintza aurkeztu nahi du urtez urte. Ildo horretan sartzen da Portugalgo buruzko egitarau berezia. Kultura eta Komunikaziorako ministerioak 47 idazle portugaldar gomitatu ditu azokaren karietara, eta idazleek eztabaidetan, irakurketetan eta eskaintzetan parte hartuko dute. Eleberririk, olerki liburuak, saiakerak eta abar aurkeztuko dituzte azokan.

26 liburu aurkeztuko dituzte *Portugalgo deskubritza* ekitaldi berezian. Azokak bosgarren aldikotz antolatuko du gisa horretako jokolehiaketa. Portugalgo literaturaren promozioa bultzatu nahi dute gisa horretan. Irakurleak liburu horiek liburutegietan eta Interneten aurkitu ahal izan ditu hilabete honetan. Liburu azokako Publiko Zabala saria hautatu behar dute, postaz edo Internetez bozkatuz.

20.000 gazteren bisita

Liburu azokak milaka bisitari erakarri nahi ditu, eta 20. aldian are gehiago. Azokak 20.000 frantses gazte gomitatu ditu. «Duela zenbait urte pario bat zen; gaur hitzordu bat da», adierazi dute antolatzaileek. Iaz eskoletako 15.000 gazte bisitatu zuten azoka, eta bertze 5.000k gurasoekin. Hurrek azokari buruzko interesa agertzen dute. Gazte animazioen egi-

horretara. Hainbat ekitaldi izango dira horko literaturaren inguruan: hitzaldiak, erakustaldiak, lehiaketak eta abar. Nazioarteko literaturaren topagunea indartu nahi dute antola-

tzaileek, eta 20.000 gazte gomitatu. Halaber, liburuaren forma desberdinak gurutzatuko dira, eta Internet bidezko liburugintza berriari buruzko gune berezi bat antolatuko dute.



ANDREAS GEBHARD / EPA

Jose Saramago idazle portugaldarra izango da Parisko Liburu Azokaren gonbidatu nagusia.

Liburu numerikoen mendea

■ NOLA irakurriko dugu bihar? Galdera horren inguruan egituratu dute eBook gunea. 500 metro koadroko eremu horrek liburu eta irakurketa numerikoak aurkeztuko ditu. 00h00.com eta Adobe argitaletxeek geroaren aitzin gustu bat emanen dute. Erakusketa, irakurketa gunea eta forumak izango dira gune berri horretan.

Erakusketak idatziaeren historia luzea eta geroan izango duen bilakaera eskaintzen ditu, zirkuitu pedagogiko baten bitartez.

Liburu elektronikotak erakutsiko

dituzte. Etorkizuneko irakurketa tresnak ere agertuko dira, hala nola sakelako telefonoa eta paper elektronikoa. Internet bidez argitaratzeko aukerak hobeki ezagutzen ahaliko dira, bertalde, azoka horretan. Liburutegi elektronikoen irakurtzeko parada eskainiko die bisitariei.

Animatzaileek bisitariak lagunduko dituzte euskarri numerikoko irakurketaren deskubritzen. Bisitariak irakurketa numerikoa sakontzen ahaliko dute, etengabe iragienen diren hitzaldiei

esker. Argitaletxeek pentsatuko dute nola egokitu teknologia berri horri.

Liburu edo egunkariak Internet bidez kargatzeko aukera ematen duen ordenagailu sinplifikatua da liburu elektronikoa. Irakurketa interaktibo eta dinamikoa eskaintzen du. Liburu elektronikoa milaka orrialde gorde ditzake. Irakurketako baldintzak irakurleak bere gisara finka ditzake. Hiztegi integratuak liburuan agertzen den hitz baten erranahiaren segidan ezagutzeko ahala ematen du, hitza

selektionatuz gero. Irakurleak bere oharrak ezartzen ahaliko ditu nahi duen lekuan, hitzak edota esaldiak ere azpimarratzen ahaliko ditu, hatzarekin hunkituz bakarrik.

Multimedia gero eta protagonismo handiagoa hartu du liburu azokan. Internet dohainik erabiltzen ahaliko da gune batean. Hurrek joko bidezko heziketa gune bat ezagutuko dute bertan. Bilaketa motoreak eta joko guneak ere baliatzen ahaliko dira. Interneten inguruko animazio eta solasaldiak ere ez dira eskas izanen azokan.

tarauko 80.000 ale banatuko da eskolaetan.

Gazteentzako liburuaren hogeitaz argitaletxeek gune berezia prestatu dute. Solasaldiak iraganen dira egun guziz, *Jakin, maitatu, mugitu,*

handitu, erran, ikusi lemapean. Hurrei irakurtzeko gogoia sortzeko buruz gogoeztatuko dute. Olerki sailak ere zati bat zuzendu du haur eta gaztetxoentzat. Era berean, *Olerkarien udaberria* ekime-

nak publikoari olerkia berriz erakutsi nahi dio. Sail horrek gero eta arrakasta handiagoa lortzen du, azokaren antolatzaileen ustez. Idazle gazteen ekarpena azpimarratu dute, sail horretan.

Atxagaren narratiba biografikoa aztertu du Jose Angel Askunzek

■ *'Bernardo Atxaga: idazle baten mamuak'* liburua argitaratu du

Erredakzioa / Donostia

JOSE ANGEL ASKUNZE irakasleak Bernardo Atxagaren narratibaren azterketari eskainitako liburua argitaratu du, Saturraran argitaletxearen bidez. Asteasuko idazlearen obraren plano autobiografikoa aztertu ditu Askunzek *Bernardo Atxaga: los demonios personales de un escritor* (Bernardo Atxaga: idazle baten mamuak) liburuan.

Europako zenbait unibertsitateetako irakasleek 1994tik 1996ra bitartean antolatutako literatur jardunaldietan aurkeztutako lanak bildu eta ekarpen berriak gehitu dizkie Askunzek. Hain zuzen ere, Atxagaren obra aztertzea egokitu zitzaion Askunzeri aipatu jardunaldietan. *Obabakoak* aztertu zuen lehenengo, *Behi euskaldun baten memoriak* ondoren, eta, azkenik, *Gizona bere bakardadean*. Zeru horiek aztertu behar zuenean, proiektua bertan behera geratu zen baliabide ekonomikoen falta zela eta.

Azkunzeren hiru lan horiek jardunaldiak egin ziren tokian tokiko unibertsitateetako aldizkarietan argitaratu ziren. Hain zuzen ere, *Bernardo Atxagaren 'Obabakoak'-en plano autobiografikoa* Mannheingo Unibertsitateak argitaratu zuen (Alemania) eta *Bernardo Atxagaren 'Behi euskaldun baten memoriak'-en plano autobiografikoa* Geneva-ko Versant Unibertsitateak (Suitza). *Gizona bere bakardadean* liburuari zegokion lana Tolosako Unibertsitateak argitaratu behar zuen (Okzitania), baina oraindik ez du egin.

Hiru lan horiek bildu eta sakondu ditu Askunzek orain kaleratutako liburuan. Askunzeren arabera, koherentzia formala eta konplexutasun narratiboa dira Atxagaren obraren ezaugarrietako bi. Asteasuarrak bere pertsonaiei ematen dien psikologiaren indarra eta sinbolismotik psikologismora darabilen bilakaera ere ondorioztatu ditu Askunzek bere liburuan.